

# Diglosia Euskal Herriarentzat?

Enperadorearen jostuna ‘teoriaren’ harietan korapilatua

**Daniel Escribano**

*Soziologian doktorea, itzultzailea eta euskara-irakurle ohia*

**Euskara eta euskararen gaia ez da inoiz izan gizarte maila ahaltsuenen begikoa: estatu hedakorren lana izan da euskararen herria larrutzea eta soiltzea, eta lan horretan inoiz ez zaie falta izan bertako jauntxoek lankidetzak leiala.**

*Joxe Manuel Odriozola (2013)*

**Euskararen iraupena erresistentzia luze eta miresgarri baten ondorioa izan da eta izango da. Gure klase politiko nagusiak albora bota du euskara, ez zaio interesatzen kultura egiteko eta unibertsaltasuna hedatzeko tresna bezala.**

*Koldo Izagirre (2011)*

## Hitzaurrea

Aspalditik ditu aldezleak diglosiak Euskal Herrian. Euskal abertzaletasunaren sorrerak ez zuen euskarak gizarte-funtzio guztiak bereganatzearen aldeko ideologiarik ekarri. Izan ere, Paulo Iztuetak nabarmendu duenez,

EAJko gehiengo batentzat euskara, bereziki, nekazal gizarteko baserritarren eta kostaldeko arrantzaleen ezaugarria izan da, funtsean euskal kontserbadurismoaren aurpegi ezagunena, hiri-kulturatik eta ekonomia mugitzen zen industri zein zerbitzu-guneetatik aparte zegoen gutxiengo-populazio bati zegokiona.

Hartara, «'[v]asco' izanda ere, berdin-berdin izan zitekeen abertzale jator, edo euskara jakinda ere, erdaraz ere berdin-berdin egin zitekeen euskal kultura».<sup>1</sup> Are gehiago: euskara komunikazio-eremu guztietan erabiltzeko moduko hizkuntza bihurtzeko aurrebaldintza sortzearen kontra egin zuen lehendabiziko abertzaletasunak, alegia, barietate estandarra sortzearen kontra. Alde horretatik, euskal abertzaletasunaren jarrera bat zetorren nazionalismo linguistiko espainiarrarenarekin, biek ala biek euskalkiak aitzakia hartuta. Izan ere, EAJ/PNVren sortzailearen aburuz,

... al refundir todos los dialectos y subdialectos en una forma única, reconstituida como originaria común de todos ellos, quedaría de una plumada suprimido y aniquilado en su mayor parte el extenso y admirable desarrollo fonético á que el Euskera ha podido alcanzar sólo con el trascurso de muchos siglos.<sup>2</sup>

Ramón Menéndez Pidal filologo espainiarrak, bere aldetik, zera esan zuen 1921ean, Bilbon eskainitako hitzaldian:

Podréis llegar a tener un éusquera literario único, pero ése no será obra momentánea. Fácil relativamente es hacer en un libro para uso de unos cuantos escritores una combinación del guipuzcoano y el labortano y proveerla de perfecciones de otros dialectos; pero esa creo no llegará nunca a ser la lengua del pueblo. Figurémonos que eso, que yo estimo imposible, se realizara, y que las nuevas generaciones del pueblo vasco llegaran a aprender la lengua artificiosa unificada. Pues la Academia [Euskaltzaindia], en vez de haber continuado, depurado e impulsado el vasco histórico, como es su misión, habría roto bruscamente la tradición en el desarrollo del idioma, para lanzar a éste en una vía nueva; habría quitado a la lengua la mayor parte de su valor y de su autoridad histórica; habría matado a los venerables dialectos tradicionales, consagrados por la adhesión fervorosa de las generaciones vascas de hace muchos siglos, y los habría sacrificado en aras de un producto nuevo, desprovisto de interés arqueológico y sin utilidad alguna para la cultura humana, hecho sólo por el pueril interés de poder decir en una *lengua exótica* lo que muy bien puede decirse en *cualquiera de las dos grandiosas lenguas culturales del extremo occidental de Europa*.<sup>3</sup>

Modu gordinean agertu zuen Menéndez Pidalek Aranak, euskalkien geografiarekin bat ez zetorren azpiestandar probintzietarako alegiazko proposamenari helduta,<sup>4</sup> ezkutatu nahi zuen ondorio nagusia. Hots: administrazioan, literaturan, hedabideetan, zientzian, jendaurrean eta, oro har, eremu formaletan erabili beharreko hizkuntza erdarak izan behar zuela. Halaxe adieraziko zuen 1949an agintari jeltzale gailen batek:

Ezin jarri dezakegu [euskara] español prantzes, ingles eta beste erdera indartsuen mallan[.] Etxe lanetarako gai da ordea ta laguntza eta itzal aundia eman dezake oraindik urtetan eta urtetan Euskal-Erriari...

Aiton batek illobak bezala, gure semeak euskaltasunean azi lezazke; ta gure sinismen, oitura, jolas, dantza ta euskal gogoaren zaindári bikaiña izan diteke. Onek euskeraz Fisika, Kimika ta Matematikak irakastea baño geiago balio du. Gai oiek eta beste goi jakituria erderari utzita ere[,] euskerari gelditzen zaio bazter polita: etxe-barrengo, erri artekoa, Errelijioaren magal gozoa.

Orregatik Euskal Akademi-Euskalzaindi edo ta euskeraren zaingoa ertzen dutenek zur joka dezatela. Amets zoruak utzi ta euskal gai ontan programa txiki, oso txiki, errez, eta errikoia artu bear da. Bestela gurasoak, eta abertzale izenekoak gañera, izango lirateke bizkar emango lioketenak.<sup>5</sup>

Horra hor, hitza erabiltzen ez bazuen ere, diglosia zertan datzan azalpen ezin argiagoa. Diglosiaren eta hizkuntzaren funtzio-osotasunaren artean nolako harremana dagoen areago argitzeko, gogora dezagun Euskaltzaindiak 1968an onetsitako arauen aurkako libelotxoa idatzi zuela egile horrek berak.<sup>6</sup> Eta, Alderdiaren baitan, jarrera hori ez zen egile horren jarrera isolatua, handik gutxira antzeko ale bat plazaratuko baitzuen beste buruzagi batek.<sup>7</sup> 1968an Euskaltzaindiak onartutako arauetarako oinarrizko txostena idatzi zuenak esana du: «PNVko zuzendaritzak, oso bereziki, ez zuen Batuaz ezer jakin nahi, 'atzean' indar ilunak omen zeudelakoan. Eta Mitxelena bera PNVk freinatuta zegoen, gero eta nabarmenkiago».<sup>8</sup> Joan Mari Torrealdaik azaldu du orrialdeotan nolako harremana zegoen euskararen funtzio-berrezartzearekiko

eta aldaera estandarra sortzearekiko jarreraren artean: «Alor eta esparru guztiak euskaraz nahi dituztenek, euskara zernahitarako, mintzabide izateko, komunikazio tresna izateko, gizarte modernoan bizitzeko nahi dutenek, horiek euskara batuaren hautua egingo dute gero. Besteek ez». Azken batean, «[e]uskara batuaren borroka euskararen berrikuntzaren, berreskurapenaren, biziraupenaren borroka da».<sup>9</sup> Horregatik guztiagatik, hauxe konkluditu du Koldo Izagirrek:

PNVk ez zuen jakin euskara XX. mendeak zekartzan berritasunetara egokitzen. Euskaltzale handienak PNVkoak ziren, eta horrek areagotu besterik ez zuen egin alderdiaren huts historikoa: bakardadean jardun behar izan zuten neke handiak hartuz Gregorio Mujika, Xabier Lizardi, Joseba Zubimendi, Ander Arzelus... gazte hil ziren intelektual eragile haiek.<sup>10</sup>

Hala ere, gogoz edo gogoz kontra, EAJ/PNVk amore eman zuen, euskara batua onartu egin zuen, eta batua da euskal administrazioek beren agiri ofizialen euskarazko bertsioetan erabiltzen duten barietatea. Zergatik onartu zuen azaltzeko hipotesi interesgarria plazaratua du Izagirrek:

Gero ongi etorri zitzaion batua, baina PNVregatik, estandarren gatazkak jarraituko zuen oraindik ere. Autonomiari esker finkatu zen batua, hezkuntzaren eta administrazioaren premiei esker. Bestela, literaturan bakarrik jarraituko zuen batuak.<sup>11</sup>

Azken hamarkadetan euskararen ezagutza- zein erabile- ra-mailek izan duten igoera gertatzeko nahitaezko baldintza izan da batua, euskara jardungune guzti-guztietan –hau da, diglosiak euskara familia eta lagunarteko eremuetan ixten zuen hesi funtzionala hausteko– ibiltzeko doitu, eta euskaldungo osoarentzat izan da baliagarri. Euskara batuaren onurez oportunitasoz jabetu direnak, ordea, hasi dira haren garrantzia hutsaltzen, nola eta lege huts batenarekin parekatuta: «biok dira –euskara batua eta Euskararen Legeak sinbolizatzen duen lege-arkitektura, alegia– abiapuntu nagusiak euskara nozitzen ari zen atzerakada-prozesuari buelta ematera etorri den prozesua ahalbidetu dutenak».<sup>12</sup> Ez dago soberan gogoraraztea

Legebiltzarraren «euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legea» EAEn bakarrik dagoela indarrean, eta udalerrri euskaldunek euskara hutsez jardutea ere ez duela baimentzen.<sup>13</sup>

Horrez gain, pragmatismo administratibo hutsez barietate estandarra onartzea eta ideologia diglosikoak benetan gainditzea gauza ezberdinak dira. Eta ideologia diglosikoei dago-kienez, lehengo lepotik burua jarraitzen du EAJ/PNVk, haren menpe aritzen diren aholku-erakundeek, eta zenbait adituk. Izan ere, 2009ko urtarrilaren 29an onetsitako txostenean, zer eta «diglosia atxikigarria»<sup>14</sup> ezartzen zuen etorkizunerako helburu Eusko Jaurlaritzako EAB Euskararen Aholku Batzordeak, honako hau argudiatuta: «gurean, diglosiarik gabe, nolabaiteko konpartimentazio funtzionalik gabe, ez dagoela biziraupenik».<sup>15</sup> Hizkuntza-politikarako irizpideei dagokienez, «uxatu behar da helburuen multzotik 'euskaraz ez dagoelako' arrazoi soiltzat zerbait ekoiztera urtetan eta urtetan eramán gaituen konplexua», «babes publikoak ezin duela[ko] euskal kultura ekoizpena merkatuaren bideetatik urrundu».<sup>16</sup> Agienez, txostena idatzi zuten EABko batzordekideentzat euskara komunikazio-arlo guztietan sarraraztea ez da, berez, helburu nahikoa, merkatuen legea betetzeko bitarteko hutsa baizik. 'Euskaraz ez dagoelako' aski arrazoi ez, eta baztertu beharreko huskeria horien baitan sartu behar da, esaterako, Literatura Unibertsala bilduma? Eta euskarazko egunkariak, jada erdal hedabideak daudenez gero? Euskaraz ekoiztako kultur produktu oro bazter al daiteke, bere eremuan euskara garatzea 'soilik' duelako eginkizun nagusi?

Kultur politikagintzan jarrerarik atzerakoienerantz lerratatutako arditu horiek agertuko zaizkigu gero zera esatera:

Ideologia diglosikoei dagokienez, lehengo lepotik burua jarraitzen du EAJ/PNVk, haren menpe aritzen diren aholku-erakundeek, eta zenbait adituk

«euskarak ez du batere onurarik jasotzen jarrera politiko jakin batekin edo beste batekin identifikatzetik». <sup>17</sup> Kultur ondasunak merkantzia hustzat hartzen dituen ideologia neoliberalarekin, are gutxiago, bistan denez, zenbait ‘merkatutatik’ euskara desagertzea onartzea baitakar, egitate naturala balitz bezala, eta ez hautu politiko baten ondorioa. Izan ere, Koldo Mitxelenak ohartarazi zuen bezala, hizkuntza-eremuan ere *laissez faire* leloa,

... como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra –más eficaz en realidad, puesto que supone omisión, no una acción con cuya responsabilidad alguien tiene que cargar– de favorecer a unas lenguas y de postergar a otras: es, por lo tanto, una política, no una falta de política. <sup>18</sup>

Helburu horietarako funtzionala da, guztiz, ideologia diglosikoa, menperatutako hizkuntza hainbat arlotatik baztertzea zilegi egitea baitu xede.

Proposamen horri funts teorikoa eman nahian-edo, artikululu luze-luzea idatzi zuen, handik gutxira, Mikel Zalbide erakunde horretako batzordekide, euskaltzain eta Eusko Jaur-laritzako Euskara Zerbitzuko buru izandakoak. <sup>19</sup> «[D]iglosia atxikigarriaren onurak» <sup>20</sup> aurkitzeko, Mitxelenak berak noiz eta 1977an idatzitako hitzaurre batean bidenabar egindako hitz-jolasera jo behar izan dute bai EABko txostengileek baita Zalbidek ere:

No se puede confiar –como algunos hacen, más por comodidad que por otra cosa– en los efectos miríficos del decreto, ni en las declaraciones de cooficialidad u oficialidad. Así como nuestro pueblo necesita encontrar un lugar entre los pueblos, así también nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar suficiente, que asegure su continuidad y desarrollo sin aventuras maximalistas. Como he dicho y escrito en otra parte, no debemos caer en el infierno del ghetto por huir del purgatorio de la diglosia. La integración nos es tan necesaria en el aspecto lingüístico como en cualquier otro. <sup>21</sup>

Estu dabilta gure diglosiazaleak, euskararako diglosia onuragarria dela argudiatzeko, euskara ofiziala ere ez zen

garaiko aipura jota. Paula Kasares soziolinguistak argiro nabarmendu du nolako arazoak dakartzan orduko testuinguruan idatzitako hitzurretik abiatzeak, gaurko errealitate soziolinguistikoan aplikatzeko hizkuntza-politikarako zeinahi proposamen oinarritze aldera:

Alde batetik, *diglosiaren purgatorio soziolinguistiko* metaforak, gaurko balio eta erreferenteetatik urrunxko egoteaz gain, argi baino ilunkara uzten du kontua. Bertze aldetik, *ghettoren ifernua* ala *diglosiaren purgatorioa* hautatu beharrak dilema faltsu baten aitzinean jartzen gaituelakoan nago. Zer dira funtsean dilema horren bi aukerak? Zer nolako diglosia? Zeri erraten zaio *ghettoa*? 1970eko hamarkadan zerk ote zirudien *handikeriazko mentura*? Mitxelenak ez zigun ez bata, ez bertzea, ez hirugarrena argitu eta ausarta da oso hizkuntzalari handiak buruan zehatz-mehatz zer zuen ondorioztatzea. Anakronismo presentistan erortzeko arriskua du ariketa horrek. Gainera, buru ezin argiagok eginda ere, ez zait iruditzen 1970eko hamarkadako irizpen hori egungo beharren mugatzailetzat har dezakegunik. Izan ere, orain lau hamarkada nork iragar zezakeen berrogei urtetan euskarak zer bide egingen zuen? Ez da atzendu behar garai horretatik aurreikusitakoak euskararen egoera larri-larri jakin batetik egindako pronostiko-proiekzioak direla, oro har Euskal Herrian lau hamarkadaren buruan gizarteak euskarari eman dion lekutik oso urrun geratu direnak.<sup>22</sup>

## Diglosia zer den

Bi dira, nagusiki, diglosiaren kontzeptuak izan dituen adierak. Alde batetik, 1959ko artikuluan, Charles A. Fergusonek proposatu zuena:

*Diglossia* is a relatively stable language situation in which, in addition to the primary dialects of the language (which may include a standard or regional standards), there is a very divergent, highly codified (often grammatically more complex) superposed variety, the vehicle of a large and respected body of written literature, either of an earlier period or in another speech community, which is learned largely by formal education and is used for most written and formal spoken purposes but is not used by any sector of the community for ordinary conversation.<sup>23</sup>

Beraz, hiru ezaugarri nagusi ditu diglosiaren kontzeptuak Fergusonen adieran: (a) egoera «egonkor samarra» izatea; (b) hizkuntza bereko aldaerei eragitea; eta (c) aldaera horien arteko erabilera-harremana jardungunearen formalitate-mailearen araberrako banaketa hierarkizatuaren bidez ebaztea. Suitzako alemanezko kantoietan aleman estandarren (*Hochdeutsch*) eta hango lurralde-barietatearen (*Schwiizerdütsch* edo, aleman estandarrean, *Schweizerdeutsch*) arteko banaketa funtzionala da ohiko adibidea. Gurean, euskalkien eta euskara batuaren arteko kode-aldaketa izan liteke adibidea (Zalbidek berak jaso du harreman hori diglosiaren adibide, baina kontzeptua argitzeko bazterreko kontua bailitzan, oin-oharrean aipatuta).<sup>24</sup> Hala ere, Fergusonen adieraren ikergaia hizkuntza bereko aldaerak direnez, ez da erabilgarria euskarak espainolarekin eta frantsesarekin duen harremana nolakoa den aztertzeke. Horrenbestez, euskara-erdaren arteko harreman diglosikoa proposatzea baldin bada helburu, trikimailu ergela besterik ez da ondokoa esatea:

Bistan dago diglosia ez dela nonahi eta noiznahi, *per se*, opresio eta zapalkuntza moduan bizi: aleman-hizkerako Suitzan, urrutirago gabe, oso argi dago hori. Munduko gauzarik normalena da haien bertako herri-hizkeraren eta aleman jasorearen arteko konpartimentazio soziofuntzionala. Gauza batzuetarako *swiizertüüsch*-az [sic] baliatzen dira guztiak.<sup>25</sup>

Bigarren adiera da gaur egun diglosiak duen esanahirik hedatuena. Joshua Fishmanek kontzeptuaren hedadura zabaldu egin zuen, ondokoa ohartaraziz:

... diglossia exists not only in societies that utilize vernacular and classical varieties, but also in societies which employ separate dialects, registers, or *functionally differentiated language varieties of whatever kind*.

Alegia, hizkuntza ezberdinen arteko harremana ere izan daiteke diglosiazkoa. Gizartean erabiltzen diren hizkuntza horien harremanaren nolakotasunak, ordea, konpartimentazio-eskema hierarkizatu bertsuari jarraitzen dio:



This separation was most often along the lines of a H(igh) language, on the one hand, utilized in conjunction with religion, education, and other aspects of high culture, and an L(ow) language, on the other hand, utilized in conjunction with everyday pursuits of hearth, home, and lower work sphere.

Fishmanen iritziz, «kode bereziak» (*separate codes*) funtzioaren arabera erabiltzea «erabat onartua» dago, «kulturalki zilegi» eta «osagarritzat» jota («fully accepted as culturally legitimate and complementary»), hau da, «ez gatazkatzizat» «(nonconflictual)». <sup>26</sup> Diglosiaren eta elebitasunaren kontzeptuak uztartu zituen Fishmanek, <sup>27</sup> lau egoera soziolinguistiko marraztuz. Horietako bi interesatzen zaizkigu hemen: elebitasunik gabeko diglosia eta diglosiarik gabeko elebitasuna.

Bigarren adiera da gaur egun diglosiak duen esanahirik hedatuena. Fishmanen arabera, hizkuntza ezberdinen arteko harremana ere izan daiteke diglosiazkoa

Lehenengo kasuan, 'goiko' hizkuntza (*H*) gizartearen sektore baten edo batzuen monopolioa da:

... one or both of the speech communities involved are marked by relatively impermeable group boundaries such that for 'outsiders' (and this may well mean those not born into a speech community, i.e. an emphasis on ascribed rather than on achieved status) role access and linguistic access are severely restricted. <sup>28</sup>

Hori dela-eta, 'elebitasunik gabeko diglosia' egoeran, goranzko mugikortasunaren mugatzaile moduan funtzionatzen du *H* jakiteak. 'Diglosiarik gabeko elebitasuna' dugu kontrako poloa. Egoera horretan ez legoke

... social compartmentalization such that the languages of hearth and home (of indigenous peoples, on the one hand, and of immigrants, on the other) can protect themselves from the greater reward and sanction system associated with the language of new institutions to which they are exposed and in which they are involved. <sup>29</sup>

Hau da, 'beheko' hizkuntzari (*L*) 'bere' jardunguneak esleitzen zizkion eskema puskatzen da, eta arlo horiek ere usurpatzen hasten da *H*, hiztunek gizarte-altxagarri iritzita. Horrek esan nahi du joera iragankorra izaten duela 'diglosiarik gabeko elebitasunak' («bilingualism without diglossia tends to be transitional»). Izan ere, Fishmanen esanetan:

Without separate though complementary norms and values to establish and maintain functional separation of the speech varieties, that language or variety which is fortunate enough to be associated with the predominant drift of social forces tends to displace the others.<sup>30</sup>

Hau da, *L*-ri eustearen aldeko gizarte-araurik ezean, galduz joaten dira geratzen zitzaizkion jardunguneak. Hala ere, Fishmanen iritziz, 'diglosiarik gabeko elebitasunak' *L* hizkuntzaren aldaera estandarra sortzea ere eragin dezake.<sup>31</sup>

## **Euskal Herriko diglosiaren historiaz**

*Diglosia*, hizkuntza ezberdinen arteko funtzio-banaketa moduan ulertuta, kontzeptu erabilgarria da hainbat prozesu historiko soziolinguistiko azaltzeko (tartean, Euskal Herrikoa). Ñabarduraren bat edo beste eginik, gaztelania eta frantsesa, zein bere eremuan, gizarte osora zabaldu aurreko garaiko Euskal Herriari aplikatu lekieke 'elebitasunik gabeko diglosiaren' kontzeptua. Kasu horretan, ez zeuden 'bi mintza-erkidego', gizarte-klaseen arteko muga baizik: klase nagusiak, euskaraz gain bere eremuko erdaraz ere bazekitenak, eta gainerako klaseak, euskaraz bakarrik zekitenak. Horrenbestez, 'elebitasunik gabeko diglosia' egoeran bakarrik gizarte-sektore bat da diglosikoa (elebiduna dena). Izan ere, diglosia goi-mailako komunikazio-funtzioak *H* hizkuntzan bideratzean datza, ez gizarte-sektore guztiak modu diglosikoan aritzean. Gakoa da goi-mailako komunikazio-funtzio horiek gizarte-muga batekin uztartzen direla, eta *H* hizkuntzaz ez dakitenek ez dutela funtzio horietara iristerik. Hau da, beren komunikazio-beharretarako ez dute *H* behar, baina *H* ikasteko aukerarik ere ez.

Hori dela-eta, gizarte oso klasisten ezaugarria da diglosia, *H* hizkuntza gizarte-bereizle moduan funtzionatzen baitu, klase nagusien ondasun eksklusiboa. Dena den, Euskal Herrian, gizartean gaztelaniaren eta frantsesaren ezagutza hedatu ahala, euskaldunen zati handiak utzi zion bere seme-alabei euskara transmititzeari, harik eta euskara gutxiengoaren hizkuntza bihurtu arte. *L* hizkuntzak atzera egiteak pitzatu egin zuen diglosia, baina euskarari eutsi ziotenek modu diglosikoan eutsi (behar izan) zioten.

Hala eta guztiz ere, bere horretan, diglosiaren kontzeptua ez da nahikoa *dinamika* soziolinguistikoak arakatzeko. Horretarako teoria-marko batean txertatu behar da. Eta Euskal Herriko historia soziolinguistikoa aztertu nahi badugu, *hizkuntza-gatazkaz* aritu behar dugu. Gizartean komunikazio-funtzio berberak bideratzeko bi hizkuntza (edo bi baino gehiago) daudenean gertatzen da hizkuntza-gatazka. Hartara, hizkuntzen arteko auzia da, ez pertsonen edo erkidegoen artekoa. Testuinguru horretan konponbide moduko bat izan ohi da diglosia, erabat hierarkikoa. ‘Konponbide’ hori, Euskal Herrian, behintzat, iragankorra izan zen, eta huts egiten hasi zen euskaldunek norik bere estatuko erdara ikasi ahal. Euskarak zergatik egin zuen atzera aztertu nahi badugu, José María Sánchez Carrión *Txepetx*-ek *beharraren lege* deritzan kontzeptua aintzat hartu behar dugu: «lo que activa el aprendizaje individual del adulto y el uso social del idioma por parte de los grupos sociolingüísticos es exactamente *la ley de la necesidad*». <sup>32</sup> Hau da, euskararen presentzia euskal gizartean murriztuz joan zen honako faktore hauen uztarketaren ondorioz:

- (a) Estatu liberalek sortu zuten burokrazia berria gero eta herritar gehiagorengana iristen zen, eta erdaraz jakitea komenigarria zen, berme handiagoz aritu ahal izateko administrazioekiko harremanetan, eta, oro har, gizartean gora egiteko.
- (b) Haurrak erdalduntzeko tresna zen hezkuntza-sistema hedatu ahala, gero eta errazagoa zen erdara ikastea.

- (c) Botere politikoek eta klase nagusiek mespretxatuta, egoera soziolinguistiko euskalduna izan zuen babesleku bakarra euskarak. Hala ere, gizartea erdaldundu ahala, gero eta alferrikakoagoa zen euskaraz jakitea gizartean gora egiteko.

Horrenbestez, elebitasuna nahitaezko baldintza da hizkuntza-ordezkatze prozesurako. Hasierako fasean, baina, elebitasun hori diglosiaren bidez gauzatzen da: 'elebitasunik gabeko diglosia' delakoaren bidez, kontzeptua nahasgarria bada ere. Izan ere, elebitasuna egon badago, bi hizkuntzak jakin gabe ezin baita funtzioen arabera batean edo bestean aritu. Euskal Herrian, diglosia hizkuntza-ordezkapenerako bidean pitzatzen hasi zen. Hala ere, kontrako dinamikak (ordezkapena atzera eragitekoak) desagerrarazi zuen. Hartara, Hegoaldean 1960ko hamarkadan abiatutako herri-mugimendu euskaltzaleak euskarak komunikazio-arlo guztiak bereganatzea zuen helburu, eta haren jardunak kolokan jarri zuen geratzen ziren euskaldunen eskema diglosikoa, harik eta, azkenean, euskaldunek jarraitu beharreko diglosiaren

Euskararen bariedade  
estandarra euskal  
eragile guztiek  
onartuta, eta euskara  
ofizial eta administrazio  
hizkuntza bihurtuta,  
diglosia gainditu zen

inguruan gizartean omen zegoen kontsentsua<sup>33</sup> haustea lortu zuen arte. Euskara batua mugimendu horren fruitua izan zen, hizkuntza-estandarizazioaren eta diglosiaren artean dagoen antitesi-harremaren lekuko. Literaturaren bidetik hasi zen puskatzen diglosiaren hesia, euskal literatura inguruko korronte estetikoaren eremuan sarrarazi zuten idazleei

esker. Euskararen bariedade estandarra euskal eragile guztiek onartuta, eta euskara ofizial eta administrazio hizkuntza bihurtuta, gainditu egin zen diglosia. Ofizialtasunari eta hari dagozkion ondorioei esker, besteak beste, egin du aurrera euskarak azken hamarkadetan, beharrezko samar bilakatu delako. Beraz, baita diglosiaren kaiolatik atera delako ere.

## Argitzea agindu, areago ilundu

Prozesu soziolinguistiko errealen berri emateko diglosiaren kontzeptuaren eskema erraztua marrazten saiatu naiz. Dena den, diglosiaren esanahia zabaltzeaz gain, ilundu ere egin zuen Fishmanek. Fergusonen adiera, hizkuntza bereko aldaeren kode-aldaketari dagokiona, egonkorra dela ikusi dugu. *Hizkuntza ezberdinen* arteko kode-aldaketa moduan ulertuta, ordea, desagertu egiten da diglosia, gizarlean, *H* hizkuntzaren ezagutza hedatu ahala. Horrenbestez, adiera horretan, diglosia bera egoera iragankorra dela esan genezake, eta halaxe adierazi du Alan Hudsonen ere:

What seems closer to the theoretical mark than stability, in fact, is the likely direction of change once the inevitable realignment of codes and their social functions finally occurs. In cases of societal bilingualism, the general tendency appears to be for the higher-prestige language eventually to invade the domain of the home, ultimately displacing the language of lesser prestige as a first language in the community.<sup>34</sup>

Hori dela-eta, «[i]t is clear, then, that functional compartmentalization at a given point in time is in and of itself no warranty against eventual shift».<sup>35</sup> Fishmanek, baina, egoera egonkortzat jo du diglosia: «diglossia differs from bilingualism in that it represents *an enduring societal arrangement*, extending at least beyond a three generation period, such that two ‘languages’ each have their phenomenologically legitimate and widely implemented functions».<sup>36</sup> Nolako egonkortasuna den hori, elebitasunak desagerraraz dezakeena, ordea, ez du azaldu. Izan ere, *H* eta *L* hizkuntza bereko barietateak direnean, egonkorra izan daiteke diglosia (ahalegin txikiagoa eskatzen baitu hizkuntza bereko beste aldaera bat ikasteak hizkuntza ezberdin bat baino). Hizkuntza ezberdinak direnean, eta *L*-ren aldeko presio soziopolitikorik ez badago, aldiz, *L*-ren transmisioa eten egiten da, *H*-ren ezagutza hedatu ahala, batez ere hizkuntza bakoitzak dituen hiztun-kopuruak oso ezberdinak direnean. Fishmanek lau

egoera soziolinguistiko marraztu zituen diglosia ardatz hartuta, baina ez zuen azaldu nola, zer testuingurutan, ezartzen den diglosia. Fergusonen adiera hartuta, erraz samar erantzun dakioke horri: hizkuntzaren aldaera estandarra sortuta. Baina bi hizkuntza ezberdinez ari garenean? Horrez gain, Fishmanek ez zuen zehaztu zer faktorek desagerrarazten duten diglosia (nola eta zergatik pasatzen den 'elebitasunik gabeko diglosiatik' 'diglosiarik gabeko elebitasunera'), ez zeintzuk diren hizkuntza-ordezkatze prozesuen eragileak, ezta zein den prozesu horien dinamika ere.

Bere txostenean, diglosiaren kontzeptuaren inguruko «argitze-saioa» iragarri zigun Zalbidek,<sup>37</sup> baita zenbat eta 60 orrialde eskaini ere.<sup>38</sup> Interesgarria izango zen Fishmanek utzi zituen ilunguneak argitzea, jorratzeke utzi zituen gaiei heltzea, eta egin zituen akats epistemologiko nabarmenak zuzentzea. Tamalez, hori egin beharrean, modu itsuan errepikatu ditu Zalbidek Fishmanen esanak, eta haren akatsak areagotu: «Sustitutuzio-ordezkapena diglosia-galerak eta, bereziki, diglosiarik gabeko egoerak dakar, diglosiaren definizio klasikoan»;<sup>39</sup> «[b]ere horretan eusten zaion artean, iraupen-indar nabarmena du» [diglosiak];<sup>40</sup> «diglosiaren galerak (ez diglosiak) probokatzen du, hemen eta nonahi, aurrez aurreko hizkuntza (edo aldaera) bietako baten galera»;<sup>41</sup> eta abar. Zalbideren esakune borobilak irakurrita, arestian planteatutako galderez gain, hauexek ere badatokit burura: zeintzuk dira diglosiak omen duen «iraupen-indar nabarmen» hori eragiten duten faktoreak? Zergatik 'galtzen' da diglosia, edo, Fishmanen esanetan, zergatik gertatzen da «lack of successful compartmentalization»<sup>42</sup> hori? «[D]iglosia tradizionalaren eskema basikoa betetzen duen euskaldungo osoa ez dator bat gaur egungo Euskal herriaren batez besteko errealitatearekin»<sup>43</sup> esan digu Zalbidek berak. Eskema hori, Euskal Herrian, bederen, ez zen horren egonkorra izango, beraz. Izan ere, nola 'gal' daiteke diglosia, egoera egonkorra baldin bada?

Fishmanek eta haren errepikatzaileek nahi dutena esango dute, baina diglosia egonkorra dela, eta ordezkatze-prozesuak

«diglosiaren galerak» eragiten dituela esatea ilogismoa ez bada, logomakia hutsa edo hitz-jolasa da. Euskararen atzerakada «diglosiaren galerak» ekarri duela esatea «eria sintomek utzi dutelako» hil dela bezain esakune txatxua da. Alegia, eria hiltzearekin batera gaixotasunaren sintomak badoazen modu berean, ordezkatzeko-prozesua nozitzen duten hizkuntzek diglosia ere galtzen dute noizbait, baina horrek ez du esan nahi sintomak eria bizi-babeslea direnik, ezta diglosia hizkuntzaren babeslea denik ere. Eriaren heriotzaren zergatia gaixotasuna da, ez sintomen desagertzea. Modu berean, hizkuntzaren atzerakada aztertzean «diglosiaren galera» ez da kausazko azalpen. Euskara ez du diglosiak iraunarazi, euskal elebakartasunak baizik, edo, bestela esanda, Espainiako Estatuko irakaskuntza-sistemaren ahuleziak. 'Elebitasunik gabeko diglosia' dei dakioke horri, baina elebitasunik gabekiak iraunarazi du euskara, ez diglosiak. Euskaldun askok eta askok, nork bere estatuko erdara ikasi ahala, ez zioten euskarari eutsi, ezta modu diglosikoan ere, utzi egin zuten, besterik gabe. Eta lehenago utzi ez bazuten, materialki ezin izan zutelako izan zen, hau da, beste hizkuntzaz ez zekitelako. Alabaina, akaso arazoa da hori aitortzeak zera utziko lukeela agerian: Jaurlearitzako arduradunek eta haren ardituek euskaldunen elebitasunari egin ohi dizkioten gorazarreak<sup>44</sup> falazia hutsa direla.

Gogaitu arte eztabaida dezakegu diglosia egonkor edo iragankorra den, edo zeintzuk diren, Euskal Herrian, diglosia desagerrarazi duten faktoreak. Dena den, alferrik izango da hori guztia, aurretik *diglosia* zer den argi ez badugu. Diglosiaren eta elebitasunaren artean egin zuen uztarketa ez bezala, argia da oso diglosiaz Fishmanek marraztutako arlo-banaketa: hezkuntzan eta «goi-mailako kulturako bestelako eremuetan»,

Hizkuntzaren atzerakada aztertzean «diglosiaren galera» ez da kausazko azalpen. Euskara ez du diglosiak iraunarazi, euskal elebakartasunak baizik

hau da, eremu formalean, erabiltzen da *H* (erdara, gure kasuan), eta «eguneroko bihotzeko, etxeko, eta behe-mailako zereginen eremuko helburuetarako» mintzatzen da *L-z* (euskaraz). Hori horrela izanik, nola esan daiteke balizko egoera diglosikoan «entretanimendu bila irrati-telebistetara jotzen dutenean ere euskarazko irrati entzuten dute, edota euskarazko telebista ikusten»<sup>45</sup>? Ez al dugu esan diglosiaren ezinbesteko ezaugarria dela *L* eremu formaleko jardunguneetatik baztertuta dagoela? Hedabideak ez al dira arlo formaleko ohiko adibidea? Hala ere, nahas-mahasa harago doa: «arnasguneak hartzen baditugu erreferente (ez, inola ere, euskaldungo osoa)[,] behinolako diglosia zabal-sakon-iraunkorren hainbat ezaugarriren aurrean gaudela, partez bederen»;<sup>46</sup> «hor badago, egon, behinolako euskal diglosiaren arrasto eta hondar-ale ugari»;<sup>47</sup> «Errezilen eta Zerainen, Goizuetan eta Markina aldean dago gaur euskara-erdaren arteko diglosia, inon egotekotan».<sup>48</sup>

Errezil izan ezik, aipatutako gainerako udalerrri guztiak Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kideak dira, eta haien hizkuntza-politika diglosiaren antitesia da. Gizarte funtzio guztiak (baita *H*-ri dagozkionak ere) euskaraz bideratzen den lurgunea eraiki eta zabaltzea du helburu Uemak, eta hauexek dira, besteak beste, haren udalen hizkuntza-politikaren ezaugarriak: euskaraz egiten dira udalbatzako bilkurak, euskaraz idazten dira aktak eta udal-administrazioko agiri guztiak, edota euskaraz, bederen, jarduteko klausulak ezartzen dira udalak emandako diru-laguntzetan zein zerbitzuak eskaintzeko enpresa pribatuei udalak esleitzen dizkien kontratuetan. Dena den, Zalbidek Fishmani kontraesanetan ere jarraitu dionez, «hizkuntza-eskubideen lurralde-irizpidean oinarrituriko eskualdekatzeak»<sup>49</sup> ere diglosiazkotzat joz, ez dago zer harritua, azkenean, arestian aipatu eskema utzi, eta zeinahi «konpartimentazio territorial» diglosiatzat hartuta.<sup>50</sup> Kasu horretan, baina, neure egiten dut Julen Arexolaleibak Zalbideri luzatutako galdera: «zer argitzen digu diglosiaren continuum delako horrek?».<sup>51</sup>



## Zalbideren 'diglosia' Euskal Herriarentzat

### Euskara, haurtzarorako hizkuntza

Diglosiaren halako kontzeptu lausotik abiatuta, 'diglosiara-ko' proposamen lausoak baizik ezin dira espero. Hala nola «[a]ma-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurtatuko duen diglosia behar da»,<sup>52</sup> edota «gizarte-bizitzan euskarazko harreman-sareen babesle eta indargarri izango den diglosia behar dugu». <sup>53</sup> Lehenik eta behin, zera ohartarazi behar dut: Fishmani berriro ere modu akritikoan jarraituz, *ama-hizkuntza* (*mother tongue*) sasikontzeptua erabili duela hitzetik hortzera Zalbidek, adierazgarriro, euskarari bakarrik aplikatuta.<sup>54</sup> Alta, hori gogorarazi behar izatea lotsagarri xamar egiten bazait ere, aspaldiko esana da ondokoa:

Cap llengua no és materna de cap comunitat, per tal com tampoc no hi ha mares col·lectives. Les societats modernes són especialment complexes, i contenen individus que, per diverses causes, han estat criats en llengües diferents. [...] 'Llengua materna' suggereix un fenomen tan 'natural' i 'biològic' com els altres que complementen la maternitat. I això és una fal·làcia, en la qual cauen tots aquells que imaginin que la pervivència d'un idioma és una llei de la Natura.<sup>55</sup>

'Ama-hizkuntza' ez da ondo definitutako kontzeptua, nafalinala tradizionalista kutsua darion irudi metaforiko hutsta baizik. Carme Junyentek nabarmendu duenez, «la idea implícita que entre la llengua i la mare hi ha alguna mena de connexió especial» du abiaburu irudi horrek. Hala ere,

... la utilització de la dona com a instrument de transmissió implica que la llengua materna no sempre coincideix amb la llengua de la mare i que, en tot cas, quan es tracta de triar, l'elecció està mediatitzada per molts factors que tenen molt poc a veure amb la llengua.

Aitzitik, «la llengua materna coincidirà amb la llengua de la mare si, a més a més: a) és la llengua del pare, i/o b) és la llengua de l'entorn, i/o c) és la llengua dominant». Horrez gain:

L'altre problema que planteja el concepte és que, atès que 'de mare només n'hi ha una', pot fer arribar fàcilment a la conclusió que la llengua materna és una, i això no és cert per a molts habitants de contextos multilingües.<sup>56</sup>

Bestalde, «una curiosa implicació fatalista» dakar 'ama-hizkuntzaren' metaforak, zeinaren arabera

... l'idioma originari arribarà a considerar-se com una qualitat *racial*, com un tret semibiològic, objecte d'herència (com una propietat de la *sang*), i, així, idealment sostret a les vicissituds i les incerteses de l'aprenentatge.<sup>57</sup>

Alabaina, Rafael L. Ninyolesek antzeman duen bezala, aipatu arazo metodologikoez harago, konnotazio ideologiko sakona dario 'ama-hizkuntzaren' irudi metaforikoari, diglosia –Fishmanek eman dion adiera koherente bakarrean ulertuta–, naturalizazioaren bidez, zilegi egiten duena:

La noció de la llengua materna deriva tot el seu encant del fet d'aparèixer vinculada –i potser circumscrita– al *milieu* domèsticofamiliar de quan érem infants. Naturalment[,] això fa pensar en la 'cèl·lula bàsica de la societat', etc. Però també evoca el món i el llenguatge infantils, en contraposició amb els adults. [...] La cosa més interessant és que una llengua exclusivament 'materna', en el sentit d'"infantil", no seria per a tota la vida, sinó que les persones haurien d'abandonar-la, junt amb les altres puerilitats, en accedir a l'edat adulta (superior). Aquest fenomen presentaria l'abandonament del propi idioma com un fenomen, no sols natural, sinó també positiu. La castellanització esdevindria aleshores un indicador de maduresa.<sup>58</sup>

Metaforez ari garenez, poetaren begiradara joko dugu:

Ugatzarekin hartzen den hori omen da gizakiaren benazko hizkuntza, amak eman ziguna, sehaskan entzun genituen txuntxun-lunberdeena... [...]

Euskaldunok ordea ez gaude leku txarrean jakiteko, hain zuzen, familia ez dela beti hizkuntzaren jarraipenaren altzoa, haurrek familiarik kanpoko hizkuntza hartzen dutela 'ama hizkuntza' bezala, ingurukoa bihurtzen zaiela familiarrena. [...]

[...] Ugatz linguistikoa ez da amarena.<sup>59</sup>

Horregatik guztiagatik zera ondorioztatu du Juan Carlos Morenok:

Es preferible hablar de lengua nativa o lengua primera en vez de lengua materna. No siempre es la lengua de la madre la que primero se aprende. Por otro lado, los niños cuyo padre y madre hablan una lengua cada uno pueden adquirir de modo natural las dos.<sup>60</sup>

### Balizko errotekin borrokan

Bigarrenik, lehenasuna belaunaldiz belaunaldiko transmisioan jartzeak lubakia atzeegi finkatzea dakar. Izan ere, Wolfgang Dresslerrek adierazi duenez, hizkuntza-ordekatze prozesuetan «bleibt die Familie meist letzte Domäne der rezessiven Sprache»,<sup>61</sup> hau da, familia atzera doan hizkuntzaren azken eremu geratzen da. Berriz ere, azalpen kausala baztertuta, ondorioen eremuan geratu da Zalbide. Izan ere, belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ez da aldagai independente hutsa, alegia, berez gertatzen den edo gertatzen ez den prozesua, baizik eta gizartearen egitura soziolinguistikoaren markoan hartutako erabakia, hizkuntza-ahalbide, -behar eta -komentzietatik baldintzatuta. Beraz, transmisioa sustatzeko, ahalbide, behar eta komentzia horietan eragitea izan behar du helburu hizkuntza-politikak.

Bestela, gaur egun, arriskuan al dago familia euskaldunen hizkuntza-transmisioa? Azken *Inkesta soziolinguistikoa*-ren arabera, 2011n 2 eta 15 urte bitarteko seme-alabarik zuten guraso «elebidunen»<sup>62</sup> %86k euskara hutsez hezten zituzten euren haurrak EAEn, eta %11k elebiz. Nafarroan, %78k eta 17k, hurrenez hurren; eta Ipar Euskal Herrian, %54k eta 33k. Guraso «elebidun» bakarreko familien kasuan, %71k

Lehenasuna belaunaldiz belaunaldiko transmisioan jartzeak lubakia atzeegi finkatzea dakar. Arriskuan al dago familia euskaldunen hizkuntza transmisioa?

transmititzen zuten euskara, gaztelaniarekin batera, EAEn; eta %67k Nafarroan. Iparraldean, guraso euskaldun bakarreko familien %56k transmititzen zituzten euskara eta frantsesa.<sup>63</sup> Jakina denez, euskararen ezagutza minoritarioa da, oraindik, Euskal Herrian. Izan ere, *Inkesta*-ren arabera, Euskal Herrian 16 urtetik gorako biztanleen %27k baizik ez zuten euren burua «elebiduntzat» jotzen, eta %14,7k «elebidun hartzailatzat» (alegia, euskaraz ulertu bai, baina hitz egiten eta idazten ez duen hiztuntzat).<sup>64</sup> Lurraldeka, Gipuzkoan bakarrik ziren nagusi «elebidunak» (49,9) eta «elebidun hartzaileak» (16,4); gainerako herrialdeetan honakoak ziren zifrak: 25,4 eta 17,8 Bizkaian; 16,8 eta 16,8 Araban;<sup>65</sup> 11,7 eta 7,5 Nafarroan;<sup>66</sup> eta 21,4 eta 9,1 Iparraldean.<sup>67</sup> Hala ere, euskararen belaunaldien arteko transmisioaren etena gertatu balitz, euskara «lehen hizkuntza» gisa jaso dutela esan zutenen kopurua aipatu zifrak baino altuagoa izango zen. Kontrakoa jazo da, ordea: Euskal Herrian, 16 urtetik gorako biztanleen %15,4k baino ez dute euskara lehen hizkuntza jaso, eta %4,9k euskara zein erdara.<sup>68</sup> Eta herrialde guztietan jaso dute erdara lehen hizkuntza 16 urtetik gorako biztanle gehienek. Izan ere, Gipuzkoan, %33,9k bakarrik jaso dute euskara lehen hizkuntza, eta %7,6k euskara eta gaztelania; Bizkaian, 11,5ek eta 4,8k; Araban, 3,4k eta 4,7k;<sup>69</sup> Nafarroan, 6,1ek eta 2,8k;<sup>70</sup> eta Iparraldean, %19,5ek jaso dute euskara lehen hizkuntza, eta %5,4k euskara eta frantsesa.<sup>71</sup> Beraz, euskarak lege-markorik zein hizkuntza-politikarik etsaienak nozitzen dituen herrialdeetan ere ez da eten euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa. Aitzitik, aipatu datuek, euren txikian, zera erakusten digute: hiztunak galdu ordez, irabazi egin dituela euskarak.

Hizkuntza-gaitasunetik behatutako hizkuntza-jarduerara igaroz gero, ondokoa ikusiko dugu: gaitasun-maila horiek ahalbidetzen duten matematika-itxaropenetik baino nabarmen gorago dagoela euskarazko jarduna. Izan ere, Hizkuntzen Kale-erabileraren azken Neurketaren datuen arabera, 2011n Euskal Herriko kaleetan orduan entzundako solasen %13,3 euskarazkoak ziren.<sup>72</sup> Euskal Herriko herritarren

euskara-gaitasun kopuruei erreparatuta, ordea, %4,9 izango zen euskarazko solasaldien kopurua, euskaldunek elkarri beti euskaraz hitz eginik, eta herritarren arteko harremanak ausazkoak izatera. Horrenbestez, Neurketaren aztertzaileek ondorioztatu bezala, «euskaldunok hizkuntzarekiko fidelak gara, bestela, eta probabilitate estatistikoaren arabera, are gutxiago erabiliko genuke euskara».<sup>73</sup> Gainera, adin-taldeka behatuta, haurrak eta gazteak dira, hurrenkera horretan eta herrialde guztietan, euskaraz gehien aritzen direnak: haurren %19,2, eta gazteen %13,4.<sup>74</sup> Belaunaldien arteko hizkuntza-harremanak nolakoak diren aztertzeko, adierazle garrantzitsua ematen digu Neurketak, hain zuzen ere: zer hizkuntzatan aritzen diren nagusiak euren haurrak inguruan daudenean, eta ez daudenean. Haurrik gabe, Euskal Herriko adin-nagusien %9,5 aritzen dira euskaraz, baina haurrak hor daudenean, 19,5era igotzen da ehunekoa.<sup>75</sup> Datu horiek guztiak gezurtatzen dute zeharo euskararen transmisioaren etenaren hipotesia. Izan ere, datu horien argitan, Miren Loinazek eta Izaro Susperregik konkluditu dutenez, «nagusiek euskara hautatzen dute transmisio hizkuntza gisa, hau da, hurrengo belaunaldiekin zein hizkuntzatan komunikatuko diren aukeratzeko orduan euskararen aldeko apustua egiten dute».<sup>76</sup>

Beraz, zeren aurka ari da Zalbide?

Beste esparru asko erdararen mende izango badira ere, hurbilenekeo esparru-multzo hori bere eskuan izan behar du hiztun-elkarte orok, era naturalean (munduko hizkuntza gehien-gehienek egin ohi duten moduan) hurrengo belaunaldira proiektatzeko aukera minimoak izan nahi baditu.<sup>77</sup>

Hori jada Labayenek zuen esana, euskararen aldaera estandarra sortzea «amets zoru» gisa zuen horrek, eta hainbeste apaindura sasiteorikoren premiarik gabe. Gainera, 1949an euskara nozitzen ari zen atzerakada zela-eta, familiaren eta lagunarteko jardunguneak ere galtzea arrisku erreala zen; baina gaur egun euskaldungoa «hurrengo belaunaldira proiektatzeko aukera» bermatuta dago, eta, horrenbestez,

anbizio handiagokoak izan behar dute helburuek. Esaterako, euskaldunek euskara transmititzeaz gain, erdaldunak eta haien seme-alabak ere euskalduntzea. Bestela, «anisotropia-  
ra» («guettora», Zalbidek eta EABko gainerako kargulantez horren gogokoa duten aipuko hitzetan) zokoratuko dituzte euskaldunak, euskaraz garatuko badira. Izan ere, Xabier Isa-  
sik ohartarazi duenez:

Hizkuntza gutxiagotuaren erabateko erabilera (*normalizazioa*) eman dadin[,] hizkuntza gutxiagotuarekiko atxekimendu osoa ezinbestekoa delarik ez da, ordea, nahikoa; *normalizazioa* izateko aipatu faktoreari hizkuntza gutxiagotuaren hiztunen proportzio nahikoa erantsi behar zaio.<sup>78</sup>

Euskara-ikastarorik doan ez eskaintzea ez dirudi estrategia-  
rik eraginkorra denik erdaldun helduak euskalduntzeko. Zer esanik ez, haurrei dagokienez, ikasleek irakaskuntza zer hizkuntza ofizialetan jasoko duten gurasoek edota ikasleek

Anbizio handiagokoak izan behar dute helburuek. Esaterako, euskaldunek euskara transmititzeaz gain, erdaldunak eta haien seme-alabak ere euskalduntzea

beraiek erabakitzeo saseskubideaz, nazioarteko hizkuntza-zuzenbideak aitortzen ez duenaz.<sup>79</sup> Ikasleak euskalduntze aldera, D ereduak berak mugak dituelarik, egin kontu B eta A ereduak.<sup>80</sup> Berreuskalduntzearen aurkako oztopoaz gain, familia erdalduneko haurren aukera-berdintasunaren kontrako eraso itzela ere bada batere euskalduntzen ez duen ikasteredua, gehiengo sindika-

lak behin eta berriz salatu duen bezala.

Hala ere, Zalbidek, irakaskuntzaz aritzean, ondokoa besterik ez du esan:

Badakit, ondo asko, euskaltzale askoren buruan beste paradigma batek duela erakarmen-lilura handiena: euskal eskolak gure arazo guztiak konponduko ditueneko paradigmak. [...] Kontua da paradigma hori martxan dugula 40 urte inguru, eta ondorioak ikusten hasteko ordua iritsia dela aspaldi.<sup>81</sup>

Hau da, kalean zenbateko maiztasunez aritzen den euskaraz neurtzen hasi zirenetik euskarazko jarduera-maila bere horretan geratu balitz bezala, euskaraz gehien mintzatzen direnak haurrak eta gazteak ez balira bezala,<sup>82</sup> eta, batez ere, D eredia Hegoaldeko eskola guztietan indarrean balego bezala.<sup>83</sup> Pernandoren egia da eskolak bakarrik ezin duela bururaino eraman berreuskalduntze-prozesua, baina are seguruagoa da ezagutzarik gabe ez dagoela erabilerarik, eta, euskarari dagokionez, hizkuntza-ereduen sistemak ez duela gutxieneko ezagutza bermatzen. Alegia, eskola euskalduna ez da baldintza nahikoa euskarazko jarduna altxatzeko; bai, aldiz, nahitaezkoa. Eta, aipatu dugunez, oraindik bada zer egina hezkuntza-arloan. Halaxe adierazi zuten duela ia hamabost urte Maria Jose Azurmendik, Erramun Baxokek eta Francisca Zabaletak ere: «after 15 years of experience in linguistic educational models, there has been a need to revise and change educational planning».<sup>84</sup>

Azkenik, euskaldunen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa arriskuan balego ere, zer konponduko luke diglosiak? Auskalo zer ezaugarri taumaturgiko ikusiko dizkion diglosiari Zalbidek, baina, nire uste apalean, transmisioan zein lagunen arteko jardunguneetan, beste arlo guztietan bezalaxe, euskarazko jarduna bermatzea eta indartzea behar ditu helburu hizkuntza-politikak, besterik gabe, xede horiek lortzeko bideak zeinahi direla ere. Diglosia *H*-ren eta *L*-ren arteko banaketa moduan ulertuta, zera eskatuko luke, besteak beste, diglosia ezartzeak Euskal Herrian: euskararen ofizialtasuna bertan behera uztea; Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko eta udalbatzetako saioetan euskaraz ezin aritzea; administrazioek herritarrekiko harremanetan euskaraz ez idaztea; euskara baztertzea unibertsitatez besteko hezkuntzatik, edo lehen hezkuntzara murriztea, harik eta haurrak erdaraz moldatzeko gai izan arte; literatura euskaraz idazteari uztea (edo jatorreria katoliko-kostunbristako, eta nork bere euskalkian idatzitako sasiliteraturara bueltatzea); euskal hedabideak eta, zer esanik ez, kultur eta zientziari buruzko

euskal aldizkariak desagertzea edo erdarara pasatzea; eta euskara batua bera erabiltzeari uztea. Hori guztia nahi du Zalbidek? Ez al da konturatu egiazko egoera diglosikoan ezin izango zituela bere burutazioak plazaratu ere egin, euskaraz, bederen, ez bailegoke euskarazko zientzia-aldizkaririk? Ildo bereko kezkak agertu ditu Paula Kasaresek ere:

Hizkuntza politikak eta plangintzak zein arlotan ez ditu baliabide eta indarrak xahutu behar? Uko egin behar al diogu unibertsi-tatean profesional (abokatu, haginlari, maisu-maistra, epaile...) euskaraz prestatzeari? Uko egin behar al diogu TB eta IKTetan euskara erabiltzeko aukeraren bat izateari?<sup>85</sup>

«Arnasguneei lehentasunezko trataera eskainiko dien diglosiazko formulazioaren alde» egin omen du «apustu»<sup>86</sup> Zalbidek. Hala ere, ikusi dugu Uemako udalerrien hizkuntza-politikak ez duela zerikusirik diglosiarekin. Beraz, zeren alde egin du Zalbidek?

## Hitzatzea

Zalbidek bere txosten luzea argitaratu aurretik, zera ohartarazi zuen Koldo Izagirrek: «Diglosiaren defentsa patriotikoak erro luzeak ditu gurean, hala ukamen ahalkegarrietan nola estilo kategorikoetan».<sup>87</sup> Hizkuntza-ordezkatze prozesuei buelta emateko, aldiz, hiru baldintza bete behar dira, Wolfgang Dresslerren iritziz: gutxiagotutako hizkuntzaren aldaera estandarra sortzea, komunikazio-arlo guztiak okupatu ahal izateko; hizkuntza-komunitateak bere buruaz kontzientzia bateratua izatea, lurralde-aldaeren gaintetik; eta lurraldetasunaren printzipioan oinarritutako lege-markoa.<sup>88</sup> Lehendabiziko bi baldintzak bete egiten ditu euskaldungoak, baina lekutan gaude hirugarrenetik. Hala ere, Uemako hizkuntza-politikak printzipio horretan du oinarri, betiere Espainiako legediak inposatutako mugen barne, gaztelaniaz besteko hizkuntzen aldeko lurraldetasun-markoa ezartzea eragozten dutenak. Lurgune hori nola babestu eta hedatu da, benetan, interesgarria, ez diglosiaren inguruan burutsu itxurazko sasieztabaidei



ekitea.<sup>89</sup> Jaurlearitzako ardituek txorimaloak marraztu ahalko dituzte, hala nola «zazpi probintzietako hiztun guztiek eskualde, jardun-gune, harreman-sare, adierazbide eta situazio guztietan euskara hutsez (edo nagusiki euskaraz) egingo duten formulazioak ez digula balio».<sup>90</sup> Pernandoren egia da hori, berriz, inork ez baitu proposatu Hego Euskal Herri edo EAE osorako politika bera ezartzea, eta Ueman sartu ahal izateko udalerrian, gutxienez, %70 euskaldun egon behar izatea da horren adierazle. Hitzetik hortzera jo ohi dute gure kargulanteek «progresibotasunera» eta «errealitate soziolinguistikoaren mugetara», Jaurlearitzak hizkuntza-politikagintzan hartzen edo omititzen duen neurri oro azaltzeko. «Progresibotasun» delakoa aitzakia hutsa izango ez bada, ordea, ondokoak ezarri behar dira: helburu zehatzak, bete diren egiaztatze moduan formulatuta, dagozkien neurgailuekin batera, epeak, eta, batez ere, baliabideak. Bestalde, ikasleen %0 euskalduntzen duen ikasteredua kentzea borondate politiko hutseko kontua da. Oinarritzko mailetako euskara-ikastaroak doan eskaintzea borondate politiko hutseko kontua da. Euskal administrazioek eskaintako lan-deialdi orotan euskaraz jakitea egiaztatzea nahitaezko baldintza ezartzea borondate politiko hutseko kontua da. 10/1982 Legebiltzarreko Legea erreformatzea udalerrri euskaldunek euskara hutsez jarduteko legezko oinarria izateko, eta hizkuntza-irizpideak direla-eta Espainiako Gobernuak EAEn duen erregeordeak jazarritako erakundeei Jaurlearitzak zein Legebiltzarrak babesa ematea borondate politiko hutseko kontua da. Administrazio publikoek esleitutako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa pribatuei euskarari buruzko gutxieneko klausulak eskatzea dagokion araudian borondate politiko hutseko kontua da. Eta abar.

Ez dut ezer berririk esan, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak hamaika aldiz azaldu baitu bere dokumentuetan nola diseinatu, neurtu eta ebaluatu beharko litzatekeen *hizkuntza-politika* izena merezi lukeen hizkuntza-jardunean eragiteko aginpide publikoek hartutako plangintza oro, eta Xabier Mendiguren Bereziartu EABko batzordekideak

gogorarazi egin zuen *XXI. mende hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak* dokumenturako oinarritzko txostenari egin zizkion iruzkinetan.<sup>91</sup> Dena den, hizkuntza-berezkotasunaren eta ekintza positiboaren kontzeptuak nahasi egin ohi ditu herri-mugimenduak,<sup>92</sup> euskarari lehentasuna emateko neurriak oinarritze aldera euskarak nozitzen duen egoera minorizatura jota. Nire iritziz, egoera soziolinguistikoak ahalbidetzen duen lekuetan lurraldetasunaren irizpidean oinarritutako hizkuntza-politika da jarraitu beharreko bidea. Alegia, euskara hizkuntza ofizial bakarra ezarri, euskaraz ez dakiten herritarrei, behin-behinean, hizkuntza-eskubideak onartuz, eta, uneoro, nazioarteko zuzenbideak aitortutakoak errespetatuz: giza-eskubideak eta oinarritzko libertateak babesteko Europako Hitzarmenaren 5. artikulua, eskubide zibilei eta politikoei buruzko nazioarteko Hitzarmenaren 14. artikuluko 3.a eta 3.f idatz-zatiak, eta haurraren eskubideen Hitzarmenaren 40. artikuluko 2.VI idatz-zatia. Hala ere, badakigunez, Espainiako Erresumako legediak galarazi egiten du lurraldetasunaren printzipioa ezartzea gaztelaniaz besteko hizkuntzen alde. Oztopo hori leuntze aldera, berezkotasunaren kontzeptua dugu, eta Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege organikoak (6. art.) zein Legebiltzarraren 10/1982 Legeak (2. art.) jaso egin dute. Alta, ez Legebiltzarrak ez Jaurlaritzak ez dute zuzenbide-ondoriorik eratorri kontzeptu horretatik. Kataluniako legedian, aldiz, erruz garatu dute berezkotasunaren kontzeptua, harik eta katalan hutsez zein «katalanez, bederen» egiteko agintzen duen arau-xedapen ororen zuzenbide-oinarri bihurtu arte. Horren arabera, ofizialtasuna norbanako hizkuntza-eskubideei soilik dagokien kontzeptua da (administrazio publikoekin herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean jarduteko eskubidea, esaterako), eta berezkotasuna, hizkuntza-erkidegoaren eskubideei, erkidegoak bere hizkuntza nagusi bilakatzeko eskubidea haren lurralde-eremuan.<sup>93</sup> Ekintza positiborako printzipioa, aldiz, horren azpitik dago, nabarmen. Izan ere, ekintza positiboko

neurriek egiturazko ezberdintasunak zuzentzea dute berehalako helburu, baina, azkenean, berdintasuna lortze aldera (adb., emakumezko gutxieneko kuota ezartzea emakumezkoek gizonezkoek adina presentzia erdiesteko). Berezko hizkuntza eta hizkuntza minorizatua bera izan daitezke, baina berezkotasuna bera (alegia, lurraldean berezko hizkuntza historikotasunik handienekoa izatea) oinarri normatibo nahikoa da hizkuntza hori nagusia izateari zilegitasuna emateko. Horrenbestez, ez du oinarri normatibo gehigarririk behar. Ekintza positiboaren irizpidera jota, gutxi gorabeherako elebitasunera hel liteke, gehienez. Euskararen berezkotasunean funtsatutako politikak, aldiz, honakoa du xede: euskara hutsezko edo euskararako lehentasunezko eremuak sortzea, eta egonkortzea. Ekintza positiboaren printzipioa euskararen alde ari daiteke Euskal Herriko leku gehienetan, baina eskas bihurtuko da berreuskalduntze-prozesuak aurrera egin ahal, eta dagoeneko halaxe da arnaguneetan. Hori dela-eta, 2005eko abenduaren 1ean Azpeitiko (Gipuzkoa) Udaltzak onartutako Ordenantzan, Udalean eta udalerrian euskararen erabileraren sustapena eta normalizazioa bermatzea helburu zuenean, euskara «udalerriko berezko hizkuntza» dela argudiatu zuten, udalerriko egoera soziolinguistikoa aipatu gabe, «Udal-organo guztietako ohiko lan-hizkuntza euskara» izatea oinarritzeko (18.1 art.).

Nolanahi ere, horretatik guztitik ezerk ez du zerikusirik diglosiarekin, nahasle ofizialek diotena diotela. Eta 'teoriarren' harietatik tiraka hastea ariketa interesgarria izanda ere, nago korapilatu egin dela gure jostuna, eta biluzik utzi duela enperadorea. 🍷

Egoera soziolinguistikoak ahalbidetzen duen lekuetan lurraldetasunaren irizpidean oinarritutako hizkuntza-politika da jarraitu beharreko bidea. Alegia, euskara hizkuntza ofizial bakarra ezarri

### Oharrak

1. Paulo Iztueta, 'Kultur gertakarien interpretaziorako giltzak', in Dabid Anaut, *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*, Euskal Memoria Fundazioa, Andoain, 2013, 206.-207. orr.
2. Arana eta Goiritar Sabin, *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*, Tipografía de Sebastián de Amorrortu, Bilbo, 1896, 21. or.
3. Ramón Menéndez Pidal, 'Introducción al estudio de la lingüística vasca', in *íd.*, *En torno a la lengua vasca*, Espasa-Calpe, Buenos Aires, 1962, 53.-54. orr. Azpimarrak nireak dira.
4. «Lo que procede, en mi opinión, es componer dentro de cada región euskeriana que haya sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver á serlo algún día, un dialecto general, formado con los elementos menos alejados de las formas orgánicas, esparcidos aquí y allá, en los diferentes subdialectos ó variedades que se hablen en el territorio de que se trate; y que ese dialecto así elaborado no sea patrimonio exclusivo de la literatura y la clase elevada de la sociedad, sino habla que, abatiendo y matando las formas usuales desechadas, llegase á generalizarse en el país y á ser común de doctos é ignorantes, pobres y ricos, siendo la lengua oficial en todas las escalas de enseñanza, desde las primeras letras hasta los estudios superiores, y apareciendo en las conversaciones callejeras lo mismo que en los discursos de más elevado estilo, y así en la enmarañada epístola del férreo aldeano como en los documentos oficiales y en las obras más abstractas o más poéticas. De esta suerte tendríamos un solo Euskera Guipuzkoano, un solo Euskera Nabarro, un solo Euskera Bizkaino, etc., viniendo á realizarse en la esfera lingüística la fórmula que en la política tiene tantos y tan decididos partidarios, *la variedad en la unidad*, que correspondería exactamente á la que hubiese de regir en este último orden» (Arana eta Goiritar Sabin, *Lecciones...*, 23.-24. orr.).
5. L.A., 'Euskeraren gaitz eta eritasunak', *Gernika*, 1949ko abendua, 26.-27. orr. Koldo Zuazoren arabera, Antonio M<sup>a</sup> Labayen zen aipu horren egilea (Koldo Zuazo, *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia, 2006, 123. or.). Handik hamar urtera, zera idatziko zuen Orixe: «Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaietan edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta holakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu iñongo izkuntzarik. Itsusitu bai, gogotik» ('Orixe' jaunaren eskutitza. 'Mea culpa' eta 'Quos ego!'. Anizetxe iaunari', *Yakin*, 9. zk., 1959, 92. or.). Edertasunaren aitzakia ere erabilia zuen hamarkada batzuk lehenago Niceto Alcalá Zamora diputatu liberal espainolak, Lliga Regionalistako zenbait diputatuk Koroaren mezuari erantzuteko hitzaldiaren testuan katalana

- ofizial aitortzeko eskatzen zuen emendakina atzera botatze aldera: «Es necesario, además, reconocer que la lengua excelsa en que escribieran Verdaguer y Maragall, Alomar y Rusiñol, no va á perder gran cosa, porque la retórica oficial no la adultere con sus vacíos ritualismos, con que no se emplee para ejercer la violencia recaudatoria del apremio ni para redactar la arbitrariedad curialesca del embargo» (*Diario de las Sesiones de Cortes. Congreso de los Diputados*, 28. zk., 1916-06-14, 590. or.). Alcalá Zamoraren antzera, hauxe ondorioztatzen zuen Orixeek, edertasunaren argudiotik: «iakingai oriek erabilli detzagun beste edozein izkuntzetan» (“Orixe’ jaunaren eskutitza...”, 93. or.).
6. Antonio M.<sup>a</sup> Labayen, *Sasi-batasuna. Mala letra y peor espíritu de una pseudo unificación*, Gráf. Lopez-Mendizabal, Tolosa, 1972.
  7. Josu Arenaza, *Tus hijos y el euskera (el mito del 'batua')*, Editorial Vizcaína, Bilbo, 1974.
  8. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi, Euskal Herria helburu*, Txalaparta, Tafalla, 1994, 160. or.
  9. Joan Mari Torrealдай, ‘Batasunaren bidea urratzen. Txillardegiren eragintza praktikoa’, *Jakin*, 204. zk., 2014, 23., 47. orr.
  10. Koldo Izagirre, *Autopsiarako frogak. Artseniko aztarnak gure hizkuntzan*, Susa, Zarautz / Iruñea / Larrabetzu, 2010, 158.-159. orr.
  11. Koldo Izagirreri elkarrizketa, Pasaia (Gipuzkoa), 2014-09-29.
  12. Patxi Baztarrika, *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*, Alberdania, Irun, 2009, 145. or.
  13. Bestalde, euskara batua, euskaldungoaren ondasunik handiena, eta legea, alderdi politikoen arteko indar-harremanen isla soila dena, maila berean jarri dituenak lasai asko gutxietsiko du legeen ahalmena... errealitate soziolinguistikoaren ilunguneak arakatu orduko: «legeriak, denik eta euskararen aldekoena izanagatik ere, ez dezake sekula herritarren borondatea ordezkatu»; «[b]eraz, asko badira ere, gero eta gehiago, euskaraz dakitenak, gehiago dira ez dakitenak, eta hauek ahalegin handia egin behar dute[,] euskara ikasi nahi badute. Ahalegin hori bereziki da handia kontuan hartzen badugu euskaraz jakitea ez dela beharrezkoa, ez behintzat nahitaezkoa. [...] Muga horrek eragin handia du, eta ezin da lege edo arau bidez aldatu» (P. Baztarrika, *Babeli gorazarre*, 208. eta 225. orr.).
  14. Eusko Jaurlearitzako Euskararen Aholku Batzordea, *XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak. Euskara XXI. Itun berri baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*, Eusko Jaurlearitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2009, 27. or. «Gaurko errealitatearen aurreak aski modu garbian erakusten digu atzea nola dantzatu: euskarak eta gaztelaniak funtzio ezberdinak bereganatuko dituzte[,] nolabaiteko banaketa funtzional baten arabera» (28. or.).

15. EAB, XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak, 29. or.
16. EAB, XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak, 44. or.
17. EAB, XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak, 56.-57. orr.
18. Luis Michelena, 'Las lenguas y la política', in *id.*, *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril, 1985, 187. or.
19. Mikel Zalvide, 'Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka', *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, 79.-80. zk., 2011.
20. EAB, XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak, 37. or.
21. Luis Michelena, 'El largo y difícil camino del euskara', in Askoren artean, *El libro blanco del euskara*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1977, 26. or.
22. Paula Kasares, 'Diglosiaren purgatorioaz iruzkin kritikoa', *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, 79.-80. zk., 2011, 201. or.
23. Charles A. Ferguson, 'Diglossia', *Word. Journal of the Linguistic Circle of New York*, 15. zk., 1959, 359. or.
24. M. Zalvide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 133. or., 53. oin-oharra.
25. M. Zalvide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 72. or.
26. Joshua Fishman, *The Sociology of Language*, Newbury House Publishers, Rowley, Massachusetts, 1972, 92. or.
27. Bi kontzeptuen artean nolako aldea dagoen argiro azaldu du Fishmanek: «bilingualism is essentially a characterization of individual linguistic versatility, whereas diglossia is a characterization of the social allocation of functions to different languages or varieties» (J. Fishman, *The Sociology of Language*, 102. or.). Are zehatzago adierazi du Joan-Lluís Marfany historialariak: «El bilingüe usa una lengua amb segons quins interlocutors i l'altra amb segons quins altres per a qualsevol funció; el diglòssic usa una llengua per a segons quines funcions i l'altra per a segons quines altres amb tothom» (Joan-Lluís Marfany, *Llengua, nació i diglòssia*, L'Avenç, Bartzelona, 2008, 34. or.).
28. J. Fishman, *The Sociology of Language*, 98. or. Geroagoko artikulua batean, egoera horren hedadura zabaldu egingo zuen: «we must recognize political or governmental diglossia whereby two or more differently monolingual entities are brought together under one political roof», eta zer eta Belgika eta Suitza, besteak beste, jarri horren adibide (Joshua A. Fishman, 'Bilingualism and Biculturalism as Individual and as Societal Phenomena', *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 1. zk., 1980, 7. or.). Belgikari dagokionez, 1970eko abenduaren 24an 1831ko Konstituzioaren 2. artikulua erreformatu zutenetik, lau hizkuntza-eremutan dago banatua lurraldea: nederlanderazkoa, frantseserazkoa, alemanerazkoa, eta nederlandera-frantseserazko elebiduna (Bruselako eskualdea). Eremu bakoitzean ondokoa da hizkuntza-irizpidea: administrazioek beren dokumentu ofizialak bertako hizkuntza idaztea, unibertsitatez besteko hezkuntza eskualdeko

hizkuntzan ematea, eta enpresek legezko agiriak eta beren beharginei bidalitako komunikazioak eskualdeko hizkuntzan idaztea. Bruselako ingurunean salbuespena da, frantsesez eta nederlanderaz idazten baitituzte euren agiri ofizialak administrazioek, eta frantsesezko zein nederlanderazko hitzunek unibertsitate aurreko hezkuntza beren hizkuntzan jasotzeko eskubidea dute. Enpresen legezko agiriei dago-kienez, frantsesez edo nederlanderaz idatzi behar dituzte, funtzionario jasotzailearen hizkuntza zein den. Horrenbestez, administrazio publikoetan, arlo sozioekonomikoan eta hezkuntzan erabilia, hiru hizkuntzek, zeinak bere eremuan, badute *H* izaera, eta ez dago *L* hizkuntzarik. Suitzaren kasuan, 1999ko apirilaren 18ko Konfederazioko Konstituzio Federalaren 70. artikulua araberara, alemanara, frantsesera eta italiara dira Konfederazioaren hizkuntza ofizialak. Horrez gain, erretorromaniera ere ofiziala da bere hiztunen eta Konfederazioaren arteko harremanetarako. Lurraldearen ikuspegitik, ordea, kantoï bakoitzari dagokio erabakitzea zeintzuk diren bere agindupeko eremuko hizkuntza ofizialak, betiere hizkuntzen lurralde-eremu 'tradicionalari' eustea helburu izanik, eta tokiko hizkuntza-gutxiengoak errespetatuz. Praktikan, gehiengoaren hizkuntza ezarri dute hizkuntza ofizial kantoï bakoitzean, Friburgo, Berna, Grisonia eta Valais kantoïetan izan ezik, non ofizialtasun-bikoitzeko araudia dagoen (Adriano Previtali, 'Le plurilinguisme suisse entre droit et réalité', *Bulletin de Législation*, 2. zk., 2005, XXVI. or.). Hizkuntza-egoera horietarako *diglosia* hitza erabiltzeak kontzeptuaren azalpen-ahalmen oro birrintzea dakar, haren eremu epistemikoa neurrigabe puztu nahirik. Bereizte epistemikorako ahalmenean datza kontzeptuen indarra, eta hamaika errealitate ezberdin izendatzen omen dituen hitzak ezer gutxirako balio du. Halako nahas-mahas kontzeptualak eraman ditu Emili Boix eta Fr. Xavier Vila soziolinguistak zera esatera: «l'èxit d'aquest terme va lligat a una indefinició tal que l'ha convertit en pràcticament inservible per a l'ús especialitzat» (Emili Boix eta Fr. Xavier Vila, *Sociolingüística de la llengua catalana*, Ariel, Bartzelona, 1998, 90. or.). Bestalde, ez da egia lurraldetasunaren printzipioan oinarritutako hizkuntza-araudiek, Suitzan eta Belgikan, oro har, indarrean daudenek, hiztun elebakarrak sorrarazten dituztenik. Suitzaren kasuan, 2008an plazaratutako inkestaren emaitzen arabera, 18 urtetik gorako populazioak, bere lehen hizkuntzaz gain, bi hizkuntza gehiago dakizki, batez beste (2,2 alemanezko zein italiarazko kantoïetan, eta 1,7 frantsesezkoan) (Iwar Werlen, 'Schlussbericht. Sprachkompetenz der erwachsenen Bevölkerung in der Schweiz,' 'Sprachvielfalt und Sprachkompetenz in der Schweiz, Nationales Forschungsprogramm 56' egitasmoaren baitan garatutako ikerketaren amaierako txoste-

- na, 2008-08-12, [http://nfp56.ch/f\\_projekt.cfm?Projects.Command=details&get=13&kati=2](http://nfp56.ch/f_projekt.cfm?Projects.Command=details&get=13&kati=2)).
29. J.A. Fishman, 'Bilingualism and Biculturalism...', 8. or.
  30. J. Fishman, *The Sociology of Language*, 105. or.
  31. J. Fishman, *The Sociology of Language*, 104. or.
  32. José María Sánchez Carrión *Txepetx, Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, egilea editore, Donostia, 1987, 300. or.
  33. Torrealdaik nabarmendu duenez, «[g]errak kolpaturiko belaunaldian, badira diglosian babesten direnak, euskarari funtzio jakin batzuk aitortu eta hortxe gozo bizitzea proposatzen dutenak, edo horrekin konformatzen direnak. Kontzienteki ala ez, frankismoak inposaturiko hizkuntz politikari men egiten diote: kultur funtzioak hizkuntza bakarrak ditu, gaztelaniak» (J.M. Torrealdai, 'Batasunaren bidea...', 45. or.).
  34. Alan Hudson, 'Outline of a theory of diglossia', *International Journal of the Sociology of Language*, 157. zk., 2002, 30. or.
  35. A. Hudson, 'Outline of a theory of diglossia', 8. or.
  36. J.A. Fishman, 'Bilingualism and Biculturalism...', 3. or.
  37. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 16.-24. orr.
  38. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 33.-93. orr.
  39. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 66. or.
  40. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 90. or.
  41. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 89.-90. orr.
  42. J.A. Fishman, 'Bilingualism and Biculturalism...', 8. or.
  43. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 95. or.
  44. Hala nola «ez gara gai elebakartasunaren onurez ohartzeko, ez baitiogu atzematen ez onura pertsonalik ez onura sozialik ere» (P. Baztarrika, *Babeli gorazarre*, 282. or.); «[e]z dago, zorionez, euskal elebakarrik»; «lortu nahi den elebitasun ahalik eta orekatuenaren bidean, onuragarri da, zeharo, hizkuntzen arteko bizikidetzaren ekinbide publiko orotan bistaratzea» (EAB, *XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak*, 27., 23. orr.).
  45. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 94.-95. orr.
  46. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 96. or.
  47. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 95. or.
  48. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 96. or.
  49. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 105.-106. orr.
  50. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 106. or.
  51. Julen Arexolaleiba, 'Ereiten jarraitu behar dugu; ezin, bestela, purgatorioari eutsi!', *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, 79.-80. zk., 2011, 158. or.
  52. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 117. or.



53. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 118. or.
54. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 91., 94., 115., 117.-118. orr., *passim*.
55. Rafael-Lluís Ninyoles, *Conflicte lingüístic valencià*, Eliseu Climent, Valentzia, 1985, 100. or.
56. Carme Junyent, *Contra la planificació. Una proposta ecolingüística*, Empúries, Bartzelona, 1998, 71-72. orr.
57. Rafael L. Ninyoles, *Idioma i prejudici*, 3 i 4, Valentzia, 1997, 156. or.
58. R.L. Ninyoles, *Conflicte lingüístic valencià*, 102. or.
59. K. Izagirre, *Autopsiarako frogak*, 264.-265. orr.
60. Juan Carlos Moreno, *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*, Alianza, Madril, 2009, 258. or.
61. Wolfgang Dressler, 'Spracherhaltung – Sprachverfall – Sprachtod', in Ulrich Ammon; Norbert Dittmar; Klaus J. Mattheier eta Peter Trudgill (argk.), *Sociolinguistics. An International Handbook of the Science of Language and Society. Soziolinguistik. Ein internationales Handbuch zur Wissenschaft von Sprache und Gesellschaft*, De Gruyter, New York / Berlin, 1988, 1.555. or.
62. *Inkesta*-n erabilitako terminologiari jarraitzen diot, okerra bada ere, agerikoa baita Hego zein Ipar Euskal Herrian dagoen elebitasun euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa, zein bere eremuan, diko-tomietatik harago doala. Esaterako, bada gaztelaniaz eta ingelesez, eta frantsesez eta ingelesez dakien jendea, eta, horrenbestez, elebiduna dena. Hala ere, *Inkesta*-n ez dute 'elebiduntzat' jo; 'elebitasun' terminoaren bidez, berez, euskaraz zein tokiko erdaraz jakitea esan nahi dute bakarrik.
63. V. *Inkesta soziolinguistikoa 2011. Euskal Herria. Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroa. Iparraldea*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2013, 34.-36. orr.
64. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 15. or.
65. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 17. or.
66. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 133. or.
67. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 189. or.
68. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 29. or.
69. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 84. or.
70. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 145. or.
71. V. *Inkesta soziolinguistikoa*, 203. or.
72. Olatz Altuna, Iñaki Iurrebaso, Xabier Isasi, Iñaki Martínez de Luna, Rosa Ramos eta Belen Uranga, 'Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaitza nagusiak', *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, 84. zk., 2012, 33. or.
73. O. Altuna *et al.*, 'Hizkuntzen...', 35. or.

74. Lurraldeka, hauek dira ehunekoak: Araban, 6,5 eta 5,7; Bizkaian, 13,7 eta 8,6; Gipuzkoan, 48,9 eta 36,9; Nafarroan, 7,5 eta 5,6; eta Iparraldean, 9,6 eta 6,7 (O. Altuna *et al.*, 'Hizkuntzen...', 45.-46. orr.).
75. Lurraldeka, honakoak dira zifrak: Araban, %2,4 eta 7,6; Bizkaian, 6,5 eta 14,2; Gipuzkoan, 23,7 eta 45,7; Nafarroan, 3,7 eta 9,2; eta Iparraldean, 4,7 eta 10 (O. Altuna *et al.*, 'Hizkuntzen...', 56. or.).
76. Miren Loinaz eta Izaro Susperregi, 'Haur eta gazteen kale erabilera aztertuz', *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, 84. zk., 2012, 158. or.
77. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 117. or.
78. Jose Luis Alvarez Enparantza, Xabier Isasi Balantzategi, *Soziolinguistika matematikoa*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1994, 51. or.
79. Giza-eskubideak eta oinarriko libertateak babesteko Europako Hitzarmenaren Protokolo gehigarriaren 2. artikulua hezkuntza-eskubidea ukatzea debekatzen du, eta, hezkuntza-arloan, gurasoen filosofia- zein erlijio-sinesmenak errespetatzeko agintzen die estatuei. Hala ere, artikulua horrek ez du hizkuntza hautatzeko 'eskubiderik' jasotzen, eta ezin da halakorik eratorri, ezta hizkuntzan oinarritutako bereizkeriarik debekatzen duen 14. artikuluekin uztartuta ere. Eta halaxe ebatzi du Giza Eskubideetarako Europako Auzitegiak. Izan ere, 1968ko uztailaren 23an emandako epaian, ondokoa arrazoitu zuen Auzitegiak: «interpréter ces deux dispositions comme reconnaissant à toute personne placée sous la juridiction d'un État un droit à être instruite dans la langue de son choix conduirait à des résultats absurdes, car chacun pourrait ainsi revendiquer une instruction donnée dans n'importe quelle langue dans l'un quelconque des territoires des Parties Contractantes». Espainiako Erresuman, Konstituzio Auzitegiak berak ere ukatu du gaztelaniaren ofizialtasunetik irakaskuntza gaztelania hutsez jasotzeko 'eskubiderik' dagoenik: «el contenido del deber constitucional de conocimiento del castellano –que este Tribunal ha precisado en la STC 82/1986– no puede generar un pretendido derecho a recibir la enseñanza única y exclusivamente en castellano» (337/1994 Konstituzio Auzitegiaren epaia, abenduaren 23koa, 9.b zuzenbide-oinarria).
80. 2004-2005 ikasturtean Europako erreferentzia-markoko B2 mailari dagokion proba egin zieten EAeko ikasleei, eta D ereduko %68k eta Bko 32,6k gainditu zuten. A ereduko ikasleei ez zieten proba egitea proposatu ere egin (Iñaki Etxeberria, *Hizkuntza ereduaren jatorria, bilakaera eta emaitzak EAeko hezkuntza sareetan*, Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar / EHIGE, d/g, 17. or.).
81. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 121. or.
82. 1989ko euskararen erabileraren ehunekoak 10,8 zen; 2011n, 13,3, adin-talde eta lurralde guztiak agregatuta. Haurren eta gazteen ka-

- suan, handiagoa izan da igoera, 1989ko 14,1etik eta 8,5etik, hurrenez hurren, 2011ko 19,2ra eta 13,4ra (O. Altuna *et al.*, 'Hizkuntzen...' 56., 34., 47. orr.). Haurren gorakada batez bestekoarena halako bi izan da, eta gazteena batez bestekoa baino 1,4 puntu handiagoa.
83. Hona hemen, ehunekotan, Hegoaldeko herrialde bakoitzean zenbat ikasle ari ziren D ereduan 2013-2014 ikasturtean, haur-, lehen eta bigarren hezkuntzan, hurrenez hurren: Araban, 57,8, 49,9 eta 44,2; Bizkaian, 70,1, 65,3 eta 56,1; Gipuzkoan, 92,8, 83,3 eta 76,3; eta Nafarroan, 27,9, 27,1, eta 24,8. Esker ona adierazi nahi diot Gaindegiko Imanol Esnaolari datu horiek helarazi dizkidalako.
84. M.-J. Azurmendi, Erramun Bachoc, eta Francisca Zabaleta, 'Reversing Language Shift: The Case of Basque', in Joshua Fishman (arg.), *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*, Multilingual Matters LTD, Clevedon / Buffalo / Toronto / Sydney, 2001, 254. or.
85. P. Kasares, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 204. or.
86. Mikel Zalbide, 'Hamar ondorio, gazi eta gozo', *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, 79.-80. zk., 2011, 244. or.
87. K. Izagirre, *Autopsiarako frogak*, 116. or.
88. W. Dressler, 'Spracherhaltung...', 1.558.-1.557. orr.
89. Argi eta garbi adierazi du Paula Kasaresek: «egungo egoera azaltzeko nola gure premia soziolinguistikoak adierazteko diglosia ez bertze kontzeptu eta formulazio batzuetan sakontzea interesgarriagoa iruditzen zait, erronka berriek hitz berriak merezi dituzte eta» (P. Kasares, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 204. or.).
90. M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 33. or.
91. Xabier Mendiguren Bereziartu, 'Oinarrizko txostenari egindako ekarpena', in Euskararen Aholku Batzordea, *XXI. mende hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak. Batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2008, 201.-205. orr. bereziki. Txosten hori, hain zuzen, aipatu du Zalbidek, baina ez omen zuen «batere ase», zergatik eta Mendigurenek «[d]iglosiarik gabeko etorkizuna opa» ziolako euskarari (M. Zalbide, 'Diglosiaren purgatorioaz...', 15. or.). Zalbideren burutazioa argitaratu dutenek jakingo dute zergatik, haren testuari buruz zenbait adituri bere iritzia emateko parada eskaini zieten arren, ez zioten Mendiguren Bereziarturi gizalegez zegokion erantzuteko aukera eskaini ere egin, halako aipamen kritiko zuzena jasota.
92. Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak ez dituzte nahasten, berezkitasunaren kontzeptua baztertu egin dutelako euren hizkuntza-politikagintzatik.
93. Ik. Joan Ramon Solé i Durany, 'El concepto de llengua pròpia en el dret i en la normalització de l'idioma a Catalunya', *Revista de Llengua*

## Diglosia Euskal Herriarentzat?

*i Dret*, 26. zk., 1996, 108.-119. or., eta Josep Maria Puig Salellas, 'Els grans conceptes de la doble oficialitat en la Llei 1/1998, de política lingüística', *in id.*, *Doble oficialitat i llengua pròpia: dues llengües i un territori*, Marcial Pons, Madril, 2009, Ester Franquesak eta Lluís Jouk prestatutako edizioa, 221.-226. orr.